



MIKEL  
ARRIZABALAGA  
AIZPURUA

# AIAKO HARRIA

PARKE NATURALA  
ETA  
JAIKIBEL

© **Testuak eta argazkiak:** Mikel Arrizabalaga Aizpurua

**Diseinua:** Nuria Urreta

**Azaleko diseinua:** Aurkene Etxebarria

**Azaleko argazkia:** Aiako Harria natura parkea egunsentian | poliki - stock.adobe.com

**Ondoko orrialde hauetako argazkiak:**

stock.adobe.com - Unai Huizi: 20-21, 22-23, 36-37, 48-49, 66-67, 74-75, 92-93, 120-121, 122-123 | poliki:

26-27, 90-91, 110-111 | Eneko Aldaz: 40-41 | Jorge Argazkiak: 42-43, 87, 96 | Tximabay: 52-53, 72-73 |

Alotz: 104-105 | Juan Carlos Muñoz: 106-107 | Noradoa: 112-113, 118-119

Alberto Muro: 102-103

flickr.com - Eneko Bidegain: 99, 100 | Turismo Gipuzkoa: 15 | Antje Schultner: 16 | Uraren Euskal Agentzia: 39 |

lune Trecet: 98, 150-151 | Urko Dorronsoro: 146-147, 148-149

**Inprimatzailea:** Leitzaran Grafikak

**ISBN:** 978-84-8216-839-5

**Lege gordailua:** D-1404-2022

© **Elkar Argitaletxeak, S.L. - Sua Edizioak**

Iparragirre 26. 48011 Bilbo

Tel. 944 169 430

www.sua.eus

sua@sua.eus

**2023ko urtarrila**

Lan honen edozein eratako erreprodukzio, banaketa, komunikazio publiko edo eraldatze egin ahal izateko, titularren baimena beharko da nahitaez, legean aurreikusita dauden salbuespenetan izan ezik. Lan honetako edozein ataleko zatiren bat fotokopiatu, eskaneatu edo era digitalean kopiatu beharra baduzu, jo ezazu CEDROra (Espainiako Eskubide Erreprografikoen Zentroa, www.cedro.org).

EUSKAL HERRIA

## EGILEA



### MIKEL ARRIZABALAGA AIZPURUA

DONOSTIA-EIBAR, 1957

Hamazazpi urtez Orereta eta Zurriola ikastole-  
tan irakasle lanetan aritu eta gero, eta erretreta  
hartu bitarte, Elkar Fundazioaren kudeatzaile,  
Martin Ugalde Kultur Parkeko arduradun eta  
Ikaselkar argitaletxeko edizio-zuzendari gisa  
lanean jardun zuen. Egunkaria, Berria eta Gara  
egunkarietan, Pyrenaica, Euskal Herria eta Nora  
aldizkarietan eta Euskadi Irratian mendiarekin  
zerikusia duten makina bat artikulu eta kola-  
borazio egin ditu. Euskal Herriko mendietan  
ez ezik, Pirinioak, Alpeak, Atlas eta Himalaiako  
mendietan ibilia da. “Aitona Blas eta iratxoak”  
(Elkar) haurrentzako ipuina eta “Rutas y paseos  
por Aiako Harria y Artikutza” (Sua) liburuak  
idazteaz gain, mendiarekin zerikusia duten bes-  
te zenbait argitalpenetan parte hartu du.

Maiteri, bizitza eta bide lagunari.

# JAIZKIBEL



# AIAKO HARRIA PARKE NATURALA

## AURKIBIDEA

HITZAURREA.....	9
IBILBIDEEN EZAUGARRI OROKORRAK .....	10
<b>AIAKO HARRIA PARKE NATURALA .....</b>	<b>11</b>
AURKEZPENA.....	12
IBILBIDEAK .....	20
1. Mazioa zeharkatuz.....	22
2. Mazioa inguratuz .....	28
3. Arditurriko erraietan.....	32
4. Meazuriko itzulia.....	36
5. Domiko eta Endara inguratuz .....	42
6. Aiako harriko bihotzean .....	48
7. Saroberreka .....	54
8. Usoko erreka inguratuz.....	58
9. Oberango basoa.....	62
10. Oielekuko mairu-baratzeak.....	68
11. Elur-zuloen ibilbidea.....	74
12. Urdaburuko parajeak.....	78
13. Aitzondoko ur-jauzia .....	84
14. Sagarraren bidea.....	88
15. Tornola erreka .....	92
<b>JAIZKIBEL .....</b>	<b>96</b>
AURKEZPENA.....	97
IBILBIDEAK .....	104
1. Mitxitxolako gaina .....	106
2. Grankantoko haran esekia .....	112
3. Azabartzako kala .....	116
4. Labetxuko koloreak .....	120
5. Labirinto zuria .....	124
6. Erentzingo portua .....	128
7. Erentzingo paramoudrak.....	132
8. Higerretik Guadalupera .....	136
9. Jaizkibelgo gandorra .....	142
10. Itsaslabarretako bidea.....	146
11. Xoxolurra Alarguntza.....	152
<b>HARRI MIMARRIYA.....</b>	<b>156</b>
<b>INFORMAZIO PRAKTIKOA .....</b>	<b>172</b>

## HITZAURREA

Aldiro, gure mendietako batera igotzen naizen bakoitzean, nire begiradak beti talka egiten du Aiako harriko<sup>1</sup> silueta bereziarekin. Mendebaldeko isurialdeak erakusten duen granitozko harresiak helezin itxura agertzen du, eta ekialdeko magalak, aldiz, leunagoa. Altuera txikiko mendiez inguraturik, kostaldetik gertu dago eta begirato-ki paregabea da Aturriren bokaletik Matxixakoraino marrazten den kosta zatiak eskaintzen duen ikuspegiak liluratzeko, baita Xoldoko gainatik Belagua eta Zurizako mendietaraino luzatzen den Pirinioetako mendilerroa gure begiez irudikatzeko. Mendigunean zehar eta inguruko zonaldetan ibiltzean, ezproi ikusgarri, gandor malkartsu eta Oiartzungo haranaren hondoan dauden Arditurriko meategietaraino irristatzen diren korridoreak ikusi ahal izango ditugu. Bide batez, gure arbasoen bizileku izan ziren lurrak ezagutu, haiek altxatutako monumentu megalitiko ugariak bisitatu eta elezaharrak gogora ekarriko ditugu.

Aiako harriko parajeak ezagutu eta gero, bertako biztanlerik ezagunena den Marik udan egin ohi duen lez, hegan egingo dugu Jaizkibelgo lurretara. Pasai Donibanen hasi eta Higerreko lurmuturrean bukatzen den mendigune paregabe honetan, askotariko itsaslabarrak, hareharrizko formazio ikusgarriak, kala txiki erakargarriak eta naturak zizelkatu dituen beste makina bat leku bitxi aurkituko ditugu. Euskal kostaldeko paisaiarik ikusgarrienetakoa den honetan, denboraren gurpilean eratzten joan diren sekretu eta aztarnak mendiaren gandor eta magaletan gordetzen dira. Haizeak eta urak higatu eta eratu dituzten forma eder hauetatik gertu ere, gizakiak historian zehar bere jardunaren ondorioz utzitako hamaika lekuko aurkituko ditugu.

Euskal Herria bildumako liburu honetan, ospe handiko bi ingurune berezi hauek ezagutuko ditugu, Aiako Harria parke naturala eta Jaizkibel hain zuzen ere. Biak ala biak, gertu egon arren, oso orografia desberdina erakusten dute, ia-ia antagonikoa, bakoitza bere balio ekologiko eta kultural garrantzitsuenekin. Biak ezagutzera gonbidatzen zaituztegu, beti ere naturarekiko erakutsi behar dugun begirunez, oreka ekologikoa aldatu gabe eta guztion ondasun diren paisaia hauek zainduz eta gaurdaino izan duten edertasun eta xarmaz gozatuz.

Kontraste handiz beteriko parajeak, hamaika sentsazio ezberdinez gozatzeko inguru paregabea.

Magikoa, benetan!

---

1. Euskaltzaindiaren irizpideei segika, mendiguneari dagokionean Aiako harria horrela idatzita agertuko da liburu honetan, alegia, bigarren hitza minuskulaz. Parke naturalaren izena, berriz, maiuskulaz azalduko da, Aiako Harria baitu izen ofizial.

## IBILBIDEEN EZAUGARRI OROKORRAK

Euskal Herria bildumako liburu honetan, Aiako Harria parke naturalean eta Jaizkibelgo mendigunean oinez egiteko zenbait ibilbide proposatzen dira. Ibilaldi hauetan, mendi-tontor eta ingurune ezagunenetakoak islatzen saiatu naiz, kasu askotan bide balizatuak erabiliz. Modu honetan, harkaitz handi, baso trinko, monumentu megalitiko, burdinolen hondakin, aspaldiko labe, haitzuloak eta abar ezagutzeko parada izango dugu. Ibilaldi gehienak, osorik edo zati batean, zirkuluan egin daitezke eta horrela ibilaldiari probetxurik handiena ateratzeko beta izango dugu. Ibilaldiak konbinatzeko aukera ere badago, horietan burutu beharreko distantzia eta denbora luzatuz. Modu honetan, bertako biztanleek oraindik gogoan dituzten sekretuz eta elezaharrez betetako paraje hauek ezagutzeko aukera ezin hobea izango dugu.

Proposatzen diren ibilaldi guztiak, urteko edozein garaitan burutu daitezke, ez baitute



zailtasun edota arrisku berezirik, beti ere mendiari zor zaion errespetutik. Erne ibili beharra dago laino egunetan, batik bat Aiako harriko gandorrean ibiltzean edota Jaizkibelgo labarretan murgiltzen garenean. Ez da segurtatze neurri berezirik behar, nahiz eta zenbait tartetan zailtasun txikiko igoera edota jaitsierak egon, gehienetan saihestu daitezkeenak. Bidearen zailtasuna, ibilbidearen luzerak eta gainditu beharreko desnibelak erakusten du. Ibilbide bakoitzean erabilitako denbora eta distantzia orientagarriak dira, horiek mendizale bakoitzak mendia ulertzeko moduaren arabera baitira; batzuek ibilbidea ahalik eta denbora gutxienean egitea dute helburu; beste batzuek, aldiz, naturarekin ahalik eta harremanik zuzenena eduki nahi dute beren begien aitzinean sortzen den guztiaz gozatuz.


Sarbideak, herri desberdinak lotzen dituzten edo leku konkretu batean amaitzen diren asfaltatutako errepidetatik egiten dira. Bidezidor zaharrak ezabatu dituzten baso-pistak ere ugariak dira, orain arte izandako oreka arriskuan jarritz. Hala ere, proposatzen diren ibilbideak nagusiki balizatuak bidezidor eta bideetatik burutu daitezke, beti ere pista eta bide asfaltatuak saihestuz.

Gailurretara igoko gara, haran hestu eta misteriotsuak zeharkatuko ditugu, baso trinkoetan murgilduko gara, ekosistemen aniztasunez gozatuko dugu, elezaharrak gogoratuko ditugu, itsas-labarretaraino jaitsiko gara eta gure arbasoen hondakinak bisitatuko ditugu. Hitz gutxitan esateko, inguru natural eder eta erakargarriaz gozatzeko aukera ezin hobea izango dugu.

Inguru hauetaz gozatu, baina beti ere naturari zor zaion errespetutik!

Ubidearen ondotik marrazten da bidea.

# AIAKO HARRIA





Txurumurruko tontorra Erroilbidetik.

## PARKE NATURALA

Aiako Harria parke naturalaren lurak Gipuzkoako ipar-ekialdean, Bidasoa eta Urumea ibaien artean kokaturik badaude ere, mendigunea Nafarroako ipar-mendebaldean dauden Lesakako lur eremuetara hedatzen da eta muga egiten du Lapurdiko lurerekin. Antzeko orografia izan eta ingurune berdina partekatu arren, Nafarroako ez du parke naturalaren izendapenik.

1995eko apirilaren 11ko 241/1995 dekretuan izendatu zuten parke naturalak 6.913 hektarea ditu, eta bere barne hartzen ditu Donostia, Errenteria, Oiartzun, Irun eta Hernani udalerrietako lurak. Egun berean, 240/1995 dekretuaren bi-

dez, natur baliabideak antolatzeko plana onartu zen. Zazpi urte geroago, berriz, Aiako Harria parke naturalaren erabilera eta kudeaketarako plan eraentzailea onartu zen apirilaren 16ko 87/2002 dekretuaren bidez. Beste hamaika urte pasa ziren, 355/2013 dekretuaren bidez, Aiako Harria parke naturala, Natura 2000 Sareko kontserbazio eremua izendatzeko. 2005etik 2009ra, ingurumenaren aldeko proiektuak finantzatzeko Europar Batasunaren Life programaren laguntza jaso zuen. Laguntza honen helburua, Aiako Harria parke naturalaren BLGa (Batasuneko Garrantzizko Lekua) kontserbatzea eta lehengoratzea zen.

## GEOLOGIA, ERLIEBEA ETA KLIMA

Aiako harriko mendi-puska granitikoak Artikutzako finkatik Irun herritik gertu dagoen San Martzial ermitaraino hedatzen da. Mendigunearen eraketa geologikoa fase desberdinetan gertatu zen. Hasieran, ingurune honetako eraketa geologikoa gerora Euskal Herria osatu zuten mendien eraketa bera da: itsas-hondoan sedimentazioa gertatu eta gero, alboetako presioengatik aipatutako sedimentuak plegatu egin ziren masa kontinental urgaineratuz. Fase horren ondoren, Aiako harriko eraketak ezaugarri berezia izango du, zehazki orain 250 milioi urte, magma granitikoak gora egin zuen azaleraino, arroak zeharkatu eta goi-geruzak deformatu zituen. Magma azaleratu eta gero, hoztu eta granito batolitikoak sortu zuen, denboran zehar higadurari aurre egin dion arroka gogorragoa izanik. Gerora, erliebea modelatuz joan da, granitoa azaleratu eta inguruetako mendi eta muinoekiko bereiztuz.

Aiako harria ingurune zabal batean kokaturik dago. Bi isurialde bereizten dira. Lehena mendebaldekoa, malkartsua, amildegi sakon, korridore estu, ezproi zirrargarri eta oso zorrotzak diren monolitoez osaturik; ekialdeko isurialdean, berriz, mendi-magalak leunagoak dira. Hiru dira Aiako harriko silueta marrazten duten tontorrik ezagunenak: Irumugarrieta, Txurumurru eta Erroilbide. Begiratokiaren kokapenaren arabera, mendiguneak itxura desberdinak hartzen ditu eta historian zehar izen desberdinez izendatu dituzte: Napoleonen aurpegia, Hiru Koroak... Mendigune berean dauden beste kota batzuk azpimarra daitezke: Errekarte punta, Muganix, Harribeltza, Enarri, Lizarretako gaina, Arrisoro... Baina, Aiako harriko ingurua orain arte azaldutakoa baino zabalagoa da, mendilerro batek mendigunea inguratzen du hurrengo mendiak nabarmenduz: Zaria, Munagirre, Errenga eta

Bianditz Oiartzungo lurretan, Urdaburu eta Aldura Errenteriako lurretan, Galtzarrieta, Agiña eta Kopako harria Lesakako lurretan eta azkenik, Erlaitz eta Pagogaña Irungoetan.

Aiako harriko tontorretatik, Endara eta Meakako bailaretara irristatzen diren malkarretan hamaika errekek garraiatzen dituzten urek bat egiten dute ur ugari ibaiak sortuz. Mendebaldeko isurialdean, Arditurriko errekek, magal malkartsuetatik datozen urak biltzen ditu eta Ergoien auzora heldu aurretik, Tornolako erreka urekin elkartu eta Oiartzun ibaia sortzen dute, azken honek Pasaiako portuan Kantauri itsasora bere urak isuri arte. Ekialdeko isurialdean, berriz, Endarako erreka urak izen bera duten urtegiak biltzen dira eta haran txiki eta estu bat zeharkatu ondoren, Bidasoa ibaian isurtzen ditu, gerora Irundik Kantauri itsasora bideratu ditzan.

Errepide batzuek zeharkatzen dute parke naturala. Lehena, Aireko Palaziora zuzentzen den errepidea da, bere altuera handiena Elurretxeko lepoan hartzen duenari. Oiartzundik Lesakara doan

Aiako harriko gandorra egunsentian.

